

Nafarrorako propio lan osasunerako lege berria galdegin dute sindikatuek

Aste honetan bi langile hil dira dagoeneko foru erkidegoan lan istripuetan

ELA, LAB, ESK, CGT eta EILAS sindikatuek eskutitz bat helarazi zieten atzo Nafarroako Parlamentuko talde guztiei, eta Lan Osasunaren Lege berri bat egiteko eskatu. Nafarroan lan osasunaren inguruan plataforma bateratua osatzen duten sindikatuon irudikoz, neurria ezinbestekoa da foru erkidegoan lan arriskuak modu eraginkorrean murriztu ahal izateko.

Erredakzioa / Iruñea

ASTE honetan dagoeneko bi langile hil dira Nafarroan lan istripuetan. Astelehenean Miguel A.G., 53 urteko etxarriarra, hil zen Bakaikun, Guerra Manutención Guema enpresan. Asteartean, Francisco Javier Lujanbio Zubiri, 39 urteko goizuetarra, zendu zen Itsasondón (Gipuzkoa), errepidean lanean ziharduela kotxe batek harrapatuta. Lujanbio urte honetan lan istripuan hil den 25. langile nafarra da. ELA, LAB, ESK, CGT eta EILAS sindikatuak «hagitz kezkatu» daude egoera hori dela kausa, eta neurriak hartu behar direla iritziz diote. Ildo horretatik, Parlamentuko taldeei Nafarrorako proio Lan Osasunaren Lege berri bat egiteko eskatu zieten atzo. Aurki, gaia aurrez aurre eztabaidatzeko.

Lan istripuen Prebentzioarako Legeak bi urte daramatza indarrean, Nafarroako enpresek hark markaturiko arau gutxi betetzen badituzte ere. Sindikatuak idurikoz, enpresei legea betetzeko



Lan arriskuak eragozteko duela bi urte indarrean jarritako legeak ondorio onik izan ez duela diote sindikatuek.

XOUSE SIMAL

erraztasunak eman behar zaizkie. Izan ere, haien ustez, «osasun sistemak paper garrantzitsua jokatu behar du lan arriskuen aitzinean». Osasun sistemak «ez du soilik izan behar maiz eta sistemati-koki osasunarentzat eta bizitzarentzat hagitz kaltegarriak izan daitezkeen lan arriskuen menpe dauden langileei eragiten zaizkien kalteen hartzailea».

Horrez gain, «protagonista izan behar du bitarteko pribatu eta publikoak koordinatzerakoan, arriskuak ahalik eta gehien murrizteko». Horrez gainera, eskutitzak balioko du eztabaida sortzeko lan osasunean zerikusirik duten talde guztien artean,

bai eta enpresarien eta langileen artean ere.

«Lotsagarria eta onartezina» • UGTk atzo hedabideetara igorri oharren arabera, «onartezina da Nafarroak duen lan hilkortasun tasa lotsaemangarria». Horrelako gertakizunen aitzinean «haserre eta ezintasuna» nagusi badira ere, UGTren idurikoz ezin da ahanzi zeintzuk diren egoera honen eragilea: «Lan Arriskuen Prebentzioarako Legea indarrean sartu zenetik kasik hiru urte igaro direlarik, Nafarroako enpresek ez dute betetzen». Prentsa oharraren arabera, «hagitz kezkarria da enpresek gai honetan erakusten duten

aurreikuspen eza». Nafarroako Lan Osasun Institutuak egindako azterketaren arabera, ia izandako lan istripuen erdiak antolaketa okerraren ondorioz gertatu ziren.

Bestalde, CCOO esan duenez, «istripuak ekidin daitezke eta ekidin behar dira». CCOO exijitzen du istripuen zergatiak ikertu eta ezbeharra eragin duten arrazoiak argi daitezela. «Beren erantzukizunei aurre egin beeharko diete legea betetzen dela bermatu beharko lukeen Administrazioak zein legea betetzen ez duten enpresariak». CCOOren aburuz, Lan Arriskuen Prebentzioarako Legea eraginkorra da, baldin eta betetzen bada.

Gamesak eta MCCk biko enpresa eratu dute Mercosurreko auto merkatuan sartzeko

■ Mercosurren arituko dira elkarlanean, eta horretarako elkarte berri bat sortuko dute

Erredakzioa / Bilbo

MCC Mondragon Kooperatiba Koorporazioak eta Gamesa taldeak atzo sinatu zuten automobil industrian elkarlanean ariko direla Mercosurreko herrietan.

Lankidetzaz aurrera eramateko bi bazkideek erdibana sortuko dute elkarte berri bat. Elkarte honen funtzioa finantza tresna izatea eta elkarrekin egingo dituzten proiektuen bideratzaile izatea da. Plan estrategiko batek zehaztuko ditu egin beharreko ekintzak.

Euskal enpresa munduan puntakoak diren bi taldeen arteko elkarlaketaren bidez, automobil industrian mundu mailako erronka handiei eraginkortasunez erantzun nahi die.

Erronka nagusi hori globalizazioa bidean goruntzko tendentzia arin bat izatea da, mundu osoko plataforma amankomunak erabiliz, osagai hornitzaile zuzenak gutxituz eta osagai askoren hornitzaileak bilatuz, banakako hornitzaileak izan beharrean.

Elkartzeak Gamesari eta MCC Mondragon Kooperatiba Koorporazioari, Mercosurreko herriek eskaintzen dituzten negozioetan partehartze handiagoa ahalbidetuko dielako ustea dute bi taldeek. X

Herrietan merkataritza zinegotziak jartzea nahi dute Gipuzkoako dendariak

Erredakzioa / Donostia

GIPUZKOAKO dendarien elkarteak egoitza berria inauguratu zuen atzo. Inaugurazio ekitaldian izan ziren, besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza sailburu Belen Greaves, Gipuzkoako ahal-dun nagusi Roman Sudupe eta Donostiako alkate Odon Elorza.

Dendarien elkarteko presidente Teresa Cormanzenak proposatu zuenez, saltoki txikiak suspertzeko, komenigarri litzateke herrietan merkataritza zinegotziak jartzea. Izan ere, Cormanzenak azpimarratu zuenez, «atzerriko kapitaleko enpresa handiak gure gizartea lehortzen ari dira», eta bien bitartean «gure elkarteko dendak dira giza harremanetarako gune naturala». X

◆ Iñaki Moreno ◆ Nafarroako LABeko Lan Osasun arduraduna

«Behin-behineko langileen artean lau bider handiagoa da lan istripuen arriskua»

A. Agirreurreta / Donostia

ASTE honetan bertan bi lagun hil dira Nafarroan lanean ari zirela. Urtariletik 25 langile zendu dira Nafarroan lan istripuetan. Hego Euskal Herriko laneko heriotza tasa handiena du Nafarroak. Urtarrila eta ekaina bitartea gaintzeko probintzietan 41 lan heriotza gertatu dira. Nafarroako LABeko Lan Osasunerako arduradunak datu horien zergatiak azaldu dizkigu, besteak beste.

■ Zer egiten duzue sindikatuek langileen bat lanean hiltzen denean?

Enpresetan ordu erdiko biltzarrik egiten ditugu, eta horrez gain protesta egiten ditugu heriotzak gertatu diren herrietan. Herenegungo istripua Gipuzkoan gertatu zen, gure eki-

men esparrutik kanpo, eta ez dugu propio heriotza hori salatzeko protesta ekitaldirik antolatu.

■ Zergatik hiltzen da horrenbeste jende lanean?

Azken lau urteetan ikaragarri egin du gora laneko heriotza kopuruak, lan istripuenak ere gora egin duelako. Europako gaintzeko herrietan, ordea, murriztu egin da. Prekarietateak nabarmen gora egin duelako gehitu dira laneko heriotzak. Langileek edonolako lanak onartzen ditugu, edonolako lan eritmoak eta edonolako baldintzak, gure behin-behineko kontratu kaskarra amaitu eta atzera ere berritu diezaguten. Hori ez da ideologia sindikala, hori hala da. Behin-behineko langileen artean lan istripua kopurua langile fin-

koen artekoa baino lau bider handiagoa da.

■ Eta legeak ez al dute inolako babesik ematen?

Legea (duela bi urte indarrean jarritako lan arriskuak eragozteko araudia) ona izan liteke. Baina enpresariak ez dute betetzen. Isunak jar daitezke, ehun mila milioi pezetarainokoak. Baina ez du eraginik, isunak errekurritu egiten dituztelako eta orduan ez dutelako zertan zigorra ordaindu.

■ Zer dio legeak?

Filosofia eta prebentzioarako kultura berri bat dakar lege horrek. Enpresariak arriskuak kentzera behartzen ditu legeak, eta hori ezinezkoa balitz langileekin prebentzioarako neurriak negoziatu beharko dituzte. Baina kultura hori ez da errotzen, ez baitute bitartekorik jarri asmo

horiek aurrera ateratzeko. Legearen filosofia interesgarria da, baina oso eskasa bitartekoei dago kienez. Arriskuen kudeaketaz hitz egiten du legeak, eta planifikazioa proposatzen du. Baina bitartekoak oso zaharrak dira, inspektzioak baino ez dituelako proposatzen.

■ Zer bitarteko dira beharrezko lan arriskuen prebentzio eraginkorretarako?

Legeak agintzen duena alde batera utzita, Nafarroan beste ezer baino lehen honako hau proposatu dugu: eskuhartze publikorako bitartekoak indartzea, enpresa ez dadin izan nagusiaren esku dagoen toki itxi bat. Horrez gain, osasun publikorako sareak langileen osasuna bermatzeko ere balio beharko du, batik bat bitarteko eskasak badaude. X